

«KABIA» FORU ORGANISMO AUTONOMOIA

XVI. ERANSKINA

Egonkortzeko salbuespeneko hautaketa prozesuaren oinarri espezifikokoak, KABIA foru organismo autonomoko 54 «Zaintzaile / Egoitzako laguntzaile / Klinika laguntzaile / Osasun laguntzaile» plaza merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko (EP2022/15/ML)

Oinarri espezifiko hauek KABIA foru organismo autonomoko (aurrerantzean, «KABIA») enplegu publikoa egonkortzeko hautaketa prozesuen oinarri orokorretan (I. eranskina) xedatutakoa osatzen dute.

1. Plazen ezaugarriak

1.1. Deitutako «Zaintzaile / Egoitzako laguntzaile / Klinika laguntzaile / Osasun laguntzaile» plazetatik, 6 KABIAko langile funtzionarioen plantillakoak dira, eta 48 KABIAko lan kontratutako langile finkoenak, jatorrizko izaeraren arabera.

1.2. Langile funtzionarioentzat deitutako plazak C2 sailkapen azpitaldean sailkatzen dira.

1.3. Lan kontratutako langileentzat deitutako plazak C2 sailkapen azpitaldearen parekoak dira, atxikita dauden KABIAko lantokian indarrean dagoen Lanpostu Zerrendaren (LPZ) arabera.

1.4. Deitutako plazek lanaldi osoa dute.

1.5. Funtzioak

a. Oinarrizko funtzioak

- Erabiltzailearen zaintza planaren arabera, bere autonomia sustatu, behar duen laguntza integrala eta personalizatua eman, fisikoa zein psikikoa, eguneroko bizitzako arlo guztietan, laguntza jardueretan, prentzioan eta aisian.

b. Funtzio zehatzak

- Erabiltzaileen garbitasun pertsonalaz arduratu, behar duen laguntza eman bere autonomia sustatuz. Norberaren tresnak, laguntza teknikoak eta bestelako ondasunak garbitu, mantendu eta sortutako hondakinak kudeatu. Arropa kudeatu eta antolatu. Erabiltzailearen ohea prestatu eta garbitu. Lekualdatzeak eta hil ondorengo prestaketak burutu.

ORGANISMO AUTÓNOMO FORAL «KABIA»

ANEXO XVI

Bases específicas del proceso selectivo excepcional de estabilización para la provisión, mediante el sistema de concurso, de 54 plazas de «Cuidador-a / Auxiliar de residencia / Auxiliar de clínica / Auxiliar sanitario-a» del organismo autónomo foral KABIA (EP2022/15/ML)

Las presentes bases específicas completan lo dispuesto en las bases generales (anexo I) de los procesos selectivos de estabilización de empleo público del organismo autónomo foral KABIA (en adelante, «KABIA»).

1. Características de las plazas

1.1. De las plazas de «Cuidador-a / Auxiliar de residencia / Auxiliar de clínica / Auxiliar sanitario-a» convocadas, 6 pertenecen a la plantilla de personal funcionario de KABIA, y 48 a la de personal laboral fijo de KABIA, según su naturaleza de origen.

1.2. Las plazas convocadas para el personal funcionario se clasifican en el subgrupo de clasificación C2.

1.3. Las plazas convocadas para el personal laboral se asimilan al subgrupo de clasificación C2, conforme a la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) vigente en el respectivo centro de trabajo de KABIA a las que están adscritas las mismas.

1.4. Las plazas convocadas tienen asignada una jornada completa.

1.5. Funciones

a. Función básica

- Según el plan de cuidados de la persona usuaria, promover su autonomía, proporcionarle, cuando lo necesite, un apoyo integral y personalizado, físico y psíquico, en todos los ámbitos de la vida diaria, en las actividades asistenciales, en la prevención y en el ocio.

b. Funciones específicas

- Velar por el aseo personal de las personas usuarias, prestándoles la ayuda necesaria, fomentando su autonomía. Limpieza y mantenimiento de las herramientas personales, de las ayudas técnicas y de otros bienes gestionando los residuos generados. Gestionar y organizar la ropa. Preparar y limpiar la cama de la persona usuaria. Realizar los traslados y preparaciones post-mortem.

- Erabiltzaileen elikaduraz eta hidratazioaz arduratu eta behar duten laguntza eman.
- Erabiltzaileen mugikortasuna ziurtatu eta mantendu beharrezko laguntza emanez eta babes neurri egokien erabilera ziurtatu.
- Agindutako dosiak eta medikazioak ematea eta behar bezala egiten dela kontrolatzea, erabiltzaileen osasunaren zaintza arloko profesionalen irizpideak jarraituz eta beraiekin elkarlanean. Edozein aldaketa fisiko, psikologiko edo bestelako gorabeherak detektatu, jaso eta bere arduradunari komunikatu.
- Erabiltzailea etxe giroan sentitu dadin, laguntza pertsonala eta emozionala ematea, eta beharrezkoa denean, gainontzeko profesionalak koordinatutako jardueretan parte hartzea eta lankidetzan aritzea.
- Zerbitzutik eratorritako parteak eta/edo erregistroak jakinaraztea, betetzea eta informatzea, ezarritako protokoloen arabera.
- Erabiltzaile eta senideen eskaerak bideratu.
- Bere lanean oinarrizko administrazio lanak egin.
- Bere ardura eta funtzioekin zerikusia duen edozein hobekuntza eta lankidetzat sustatu.
- Lanpostuarekin eta kategoriarekin lotura duen beste edozein funtzio, ardura ematen zaionean.

2. Deitutako plazak

2.1. Deitutako plazetarako sarbidea txanda irekikoa izango da, sarbide orokorreko modalitatearen bidez.

2.2. Deitutako plazei lotutako lanpostuek 1. edo 2. hizkuntza eskakizuna (HE) dute, derrigortasun data igarota edo datarik gabe, 10. oinarri espezifikoan zehazten den moduan.

3. Lan poltsa

Hautaketa prozesu honek ez du lan poltsa sortuko (17. oinarri orokorra).

4. Parte hartzeko baldintzak

a. Baldintza orokorrak:

- Txanda irekia, sarbide orokorreko modalitatea: 3.1. oinarri orokorrean adierazitakoak.

b. Baldintza espezifikoak:

- Eskatutako titulazioa: Gizarte-erakundeetan mendeko pertsonen arreta soziosanitaria emateko trebakuntza profesionalaren egiaztagiria.

Ondorio horietarako, aintzat hartuko dira honako titulu eta ziurtagiri hauek edo baliokideak direnak:

- Responsabilizarse de la alimentación e hidratación de las personas usuarias y prestarles la ayuda que precisen.
- Asegurar y mantener la movilidad de las personas usuarias prestando la asistencia necesaria y asegurando el uso de las medidas de protección adecuadas.
- Administrar las dosis y medicación prescritas y controlar su correcta realización, siguiendo los criterios y en colaboración con las y los profesionales de la vigilancia de la salud de las personas usuarias. Detectar, recoger y comunicar a su responsable cualquier cambio físico, psicológico o de cualquier otra índole.
- Proporcionar apoyo personal y emocional para que la persona usuaria se sienta en un ambiente hogareño, participando y colaborando, cuando sea necesario, en actividades coordinadas por las y los demás profesionales.
- Comunicar, cumplimentar e informar los partes y/o registros derivados del servicio, según protocolos establecidos.
- Tramitar solicitudes de personas usuarias y familiares.
- Realizar tareas administrativas relacionadas con su trabajo.
- Promover cualquier mejora y colaboración relacionada con su responsabilidad y funciones.
- Cualquier otra función que se le encomiende relacionada con el puesto y categoría.

2. Plazas convocadas

2.1. El acceso a las plazas convocadas se realizará por turno libre, mediante la modalidad de acceso general.

2.2. Los puestos a los que se asocian las plazas convocadas tienen asignados el perfil lingüístico (PL) 1 o 2 de euskera, preceptivo o no preceptivo, conforme se detalla en la base específica 10.

3. Bolsa de trabajo

El presente proceso selectivo no generará bolsa de trabajo (base general 17).

4. Requisitos de participación

a. Requisitos generales:

- Turno libre, modalidad de acceso general: los señalados en la base general 3.1.

b. Requisitos específicos:

- Titulación requerida: acreditación de la cualificación profesional de atención sociosanitaria a personas dependientes en Instituciones Sociales.

A tal efecto, se considerarán los siguientes títulos y certificados o equivalentes:

a) Erizaintzako zainketa osagarrietako teknikariaren titulua –apirilaren 7ko 546/1995 Errege Dekretua–, edo, baliokideak direnez, Klinikako teknikari laguntzailearen, Psikiatriako teknikari laguntzailearen eta Erizaintzako teknikari laguntzailearen tituluak (apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretua)–, edo, hala badagokio, argitaratu eta ondorio profesional berak dauzkan beste edozein titulu.

b) Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko teknikariaren titulua –azaroaren 4ko 1593/2011 Errege Dekretua–, edo, baliokidea denez, Arreta soziosanitariorako teknikariaren titulua –maiatzaren 2ko 496/2003 Errege Dekretua–, edo, hala badagokio, argitaratu eta ondorio profesional berak dauzkan beste edozein titulu.

c) Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren titulua –uztailaren 13ko 1074/2012 Errege Dekretua–edo, baliokidea denez, abenduaren 22ko 2061/1995 Errege Dekretuan ezarritako Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren titulua, zeina ezarri baitzen 2017ko abenduaren 30ean zaintzaileen edo gerokultoreen lanbide-kategoria lan egiten zuten profesionalentzat –Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren eta Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluaren Erabakia, 2017ko urriaren 19ko BOE–.

d) Mendekotasuna duten pertsonen arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan emateko profesionaltasun-ziurtagiria–abuztuaren 1eko 1379/2008 Errege Dekretua–, edo, hala badagokio, argitaratu eta ondorio profesional berak dauzkan beste edozein ziurtagiri. Azken kasu horretan, ziurtagiriaz edo egiaztagiriaz gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo horren baliokidea den ikasketa-titulu ofiziala aurkeztu behar dira.

- Euskara: derrigorrezko edo borondatezko 1. edo 2. hizkuntza eskakizunak, plazaren arabera, oinarri espezifikoko hauen 2.2 eta 10. ataletan adierazitakoaren arabera (3.1.f. eta 11. oinarri orokorrak).

5. Plazei lotutako lanpostuak esleitzeko baldintza espezifikoak

Oinarri espezifikoko hauetako 10. atalean adierazitako lanpostuek ez dituzte baldintza espezifikorik.

6. Egonkortze mota

Hautaketa sistema merezimendu-lehiaketa izango da (21. oinarri orokorra).

7. Baloratu beharreko merezimenduak eta horien baremoa

Merezimenduak parte hartzeko eskabidean alegatu beharko dira, 6. oinarri orokorraren 1. eta 4. ataletan ezarritakoaren arabera.

Merezimendu hauek baloratuko dira, gehienez ere, 100 puntu lortuz:

a) El Título de Técnico en Cuidados Auxiliares de Enfermería establecido por el Real Decreto 546/1995, de 7 de abril o los títulos equivalentes de Técnico Auxiliar Clínica, Técnico Auxiliar Psiquiatría y Técnico Auxiliar de Enfermería que se establecen en el Real Decreto 777/1998, de 30 de abril, o en su caso, cualquier otro título que se publique con los mismos efectos profesionales.

b) El Título de Técnico en Atención a Personas en Situación de Dependencia, regulado por el Real Decreto 1593/2011, de 4 de noviembre, o el Título equivalente de Técnico de Atención Sociosanitaria, establecido por el Real Decreto 496/2003, de 2 de mayo, o en su caso, cualquier otro título que se publique con los mismos efectos profesionales.

c) El Título de Técnico Superior en Integración Social, establecido por el Real Decreto 1074/2012, de 13 de julio, o el título equivalente de Técnico Superior en Integración Social establecido en el Real Decreto 2061/1995, de 22 de diciembre, para aquellos profesionales que el 30 de diciembre de 2017, fecha de publicación en el BOE del Acuerdo 19 de octubre de 2017 del Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, se encontraran trabajando en la categoría profesional de cuidador o gerocultor.

d) El Certificado de Profesionalidad de Atención Sociosanitaria a Personas Dependientes en Instituciones Sociales, regulado por el Real Decreto 1379/2008 de 1 de agosto, o en su caso, cualquier otro certificado que se publique con los mismos efectos provisionales. En este último caso será necesario, además del certificado o acreditación, Graduado en Educación Secundaria Obligatoria o título académico oficial equivalente.

- Euskera: perfil lingüístico 1 o 2 preceptivo o no preceptivo, en función de la plaza, de conformidad con lo dispuesto en los apartados 2.2 y 10 de las presentes bases específicas (bases generales 3.1.f y 11).

5. Requisitos específicos para la adjudicación de los puestos de trabajo asociados a las plazas

Los puestos señalados en el apartado 10 de las presentes bases específicas no tienen requisitos específicos de provisión.

6. Tipo de estabilización

El sistema de selección será el de concurso de méritos (base general 21).

7. Méritos a valorar y baremo

Los méritos se deberán alegar en la solicitud de participación de acuerdo con lo establecido en la base general 6, apartados 1 y 4.

Se valorarán, hasta un máximo de 100 puntos, los siguientes méritos:

7.1. Lan esperientzia

Lan esperientzia gehienez 60 punturekin baloratuko da, honako baremo honen eta 21.4.1 oinarri orokorrean xedatutako aren arabera:

- Lan esperientzia KABIA foru organismo autonomoan:

Gehienez 60 puntu emango dira (0,500 puntu hila-bete oso bakoitzeko), C2 sailkapen azpitaldeko zaintzaile, egoitzako laguntzaile, klinika laguntzaile edo osasun laguntzaileko lanpostu batean KABIAN eskuratutako lan esperientziagatik.

Ondorio horietarako, KABIA foru organismo autonomotzat hartuko da 21.4.1 oinarri orokorreko azken paragrafoan adierazitakoa, alde batera utzi gabe 10.2 eta 10.3 oinarri orokorretan adierazitako baldintzetan egingo dela erakunde bakoitzarentzat emandako zerbitzuen egiaztapena.

- Lan esperientzia beste Administrazio Publiko batzuetan:

Gehienez 40 puntu emango dira (0,167 puntu hila-bete oso bakoitzeko), beste Administrazio Publiko batzuetan zaintzaile, egoitzako laguntzaile, klinika laguntzaile edo osasun laguntzaile lanpostu batean, edo deitutako plazaren funtzioen eduki bereko lanpostuetan (C2 sailkapen azpitaldekoetan edo parekatutako lanbide kategorietakoetan) eskuratutako lan esperientziagatik.

Ondorio horietarako, ez da beste administrazio publikotzat hartuko gerora KABIAN integratu den udal-egoitza, hori guztia 21.4.1 oinarri orokorreko azken paragrafoari lotuta.

7.2. Merezimendu akademikoak edo bestelakoak

Gehienez 40 puntu emango dira merezimendu hauengatik:

7.2.1. Prestakuntza

Merezimendu honen ondorioetarako, titulu berak egiaztatu ahal izango ditu bai maila akademiko handiagoa bai jakintza-adar edo lan-arlo jakin bateko titulazio akademiko ofiziala, betiere oinarri honetan eta 21.4.4 oinarri orokorrean kasu bakoitzerako jasotako baldintzak betetzen baditu.

- a) Maila akademiko handiagoa (gehienez, 10 puntu).

Gehienez, 10 puntu emango dira Batxilergoa, teknikari titulua edo baliokidea izateagatik, bai eta aurrez aipatutakoak baino maila akademiko handiagoko tituluak izateagatik ere.

- b) Jakintza-adar edo lan-arlo jakin bateko titulazio akademiko ofizialak (gehienez, 10 puntu).

7.1. Experiencia profesional

La experiencia profesional se valorará hasta un máximo de 60 puntos de acuerdo con el siguiente baremo y lo dispuesto en la base general 21.4.1:

- Experiencia profesional en el organismo autónomo foral KABIA:

Se valorará, hasta un máximo de 60 puntos, a razón de 0,500 puntos por mes completo, la experiencia profesional adquirida en KABIA en el desempeño de un puesto de trabajo de cuidador/a, auxiliar de residencia, auxiliar de clínica o auxiliar sanitario/a perteneciente al subgrupo de clasificación C2.

A estos efectos, se entenderá por organismo autónomo foral KABIA lo señalado en el último párrafo de la base general 21.4.1, sin perjuicio de que la acreditación de los servicios prestados para cada entidad se realizará en los términos expuestos en las bases generales 10.2 y 10.3.

- Experiencia profesional en otras Administraciones Públicas:

Se valorará, hasta un máximo de 40 puntos, a razón de 0,167 puntos por mes completo, la experiencia profesional adquirida en otras Administraciones Públicas en el desempeño de un puesto de trabajo de cuidador/a, auxiliar de residencia, auxiliar de clínica o auxiliar sanitario/a, o de puestos de contenido igual al de las funciones de la plaza convocada pertenecientes al subgrupo de clasificación C2 o a una categoría profesional asimilada.

A estos efectos, no tendrá la consideración de otra Administración Pública la residencia municipal que posteriormente haya sido integrada en KABIA, todo ello en relación con el último párrafo de la base general 21.4.1.

7.2. Méritos académicos u otros

Se valorarán, hasta un máximo de 40 puntos, los siguientes méritos:

7.2.1. Formación

A efectos del presente mérito, un mismo título podrá acreditar tanto la posesión de un nivel académico superior como la posesión de una titulación académica de carácter oficial de una concreta rama de conocimiento o familia profesional, siempre que cumpla los requisitos recogidos en la presente base y la base general 21.4.4 para cada caso.

- a) Nivel académico superior (máximo 10 puntos).

Se valorará con un máximo de 10 puntos estar en posesión de un título de Bachiller, técnico/a o equivalente, así como de títulos de nivel académico superior a los anteriormente mencionados.

- b) Titulaciones académicas de carácter oficial de una concreta rama de conocimiento o familia profesional (máximo 10 puntos).

21.4.4 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, eta izangaiak prozesuan parte hartzeko aukera ematen duen titulazioaz bestelakoa bada, gehienez 10 punturekin baloratuko da lanbide heziketako erdi edo goi mailako teknikari titulua edo baliokidea izatea Osasungintza edo, Gizarte eta kultura zerbitzuak lan-arloetan; edo, diplomatura, MECESko 2. edo 3. mailako unibertsitate gradu, lizentzia edo unibertsitate masterreko titulua izatea Osasun Zientziak edo Gizarte-eta Lege-Zientziak (Gizarte Lana) jakintza-adarretan.

De acuerdo con lo establecido en la base general 21.4.4 y siempre que sea una titulación distinta de la que permita a la persona aspirante participar en el proceso, se valorará hasta un máximo de 10 puntos estar en posesión de un título de técnico/a medio o superior de formación profesional o equivalente en las familias profesionales de Sanidad o, Servicios socioculturales y a la comunidad; o, de un título de diplomado/a, grado universitario de nivel 2 o 3 MECES, licenciado/a o máster universitario en las ramas de conocimiento de Ciencias de la Salud o Ciencias Sociales y Jurídicas (Trabajo Social).

7.2.2. Informatikako ezagutzak

Oinarri orokorrek 21.4.3 atalean ezarritakoaren arabera baloratuko dira informatikako ezagutzak (IT Txartela edo baliokidea), gehienez 20 punturekin, baremo honen arabera:

- Microsoft Word 2003/2007/2010, oinarritzkoa edo aurreratua: 5 puntu.
- Microsoft Excel 2003/2007/2010, oinarritzkoa edo aurreratua: 5 puntu.
- Internet, oinarritzkoa edo aurreratua: 5 puntu.
- Outlook 2003/2010: 5 puntu.

7.2.2. Conocimientos de informática

Se valorarán, de acuerdo con lo establecido en la base general 21.4.3, los conocimientos de informática (IT Txartela o equivalente), hasta un máximo de 20 puntos, de acuerdo con el siguiente baremo:

- Microsoft Word 2003/2007/2010, básico o avanzado: 5 puntos.
- Microsoft Excel 2003/2007/2010, básico o avanzado: 5 puntos.
- Internet, básico o avanzado: 5 puntos.
- Outlook 2003/2010: 5 puntos.

8. Emakumeen aldeko lehenetasun klausula

Azken puntuazioan berdinketa gertatuz gero, emakumeei ez zaie lehenetasuna emango, arreta zuzeneko edota zaintzarekin zerikusia duten lanpostuetan %40 baino gehiago baitira.

8. Cláusula de prioridad a favor de las mujeres

En caso de empate en la puntuación final no se dará prioridad a las mujeres, toda vez que están representadas en más de un 40% en los puestos de atención directa y/o relacionadas con el cuidado.

9. Parte hartzeko tasaren ordainketa

Oinarri orokorren 6.3 atalean jasotakoari jarraituz, tasaren ordainketa ondorengo banku kontuan egin beharko da:

9. Pago de la tasa de participación

De acuerdo con lo previsto en el apartado 6.3 de las bases generales, el pago de la tasa se realizará en la siguiente cuenta bancaria:

ES70 2095 0611 0091 2210 7873 (Kutxabank)

Kontzeptu gisa deialdiaren kodea adierazi beharko da (kasu honetan, EP2022/15/ML) eta, ondoren, izangaiaren NAN zenbakia (letra barne):

Deberá indicarse como concepto el código de la convocatoria (en este caso, EP2022/15/ML) y seguidamente el número de DNI (incluida la letra) de la persona aspirante:

EP2022/15/ML_____

10. Hautaketa prozesuaren bidez bete beharreko lanpostuak

Hautaketa prozesuaren bidez bete beharreko lanpostuak ondoren adierazitakoak dira:

10. Puestos de trabajo a proveer por medio del proceso selectivo

Los puestos a proveer por medio del proceso selectivo son los indicados a continuación:

Kodea Código	Lantokia Centro de trabajo	Izena Denominación	Plaza kopurua Número plazas	HE PL	Lan kontratupeko langilea (L) edo funtzionarioa (F) Personal laboral (L) o funcionario (F)	Arloa Área
031	Bergara	Klinika laguntzailea Auxiliar de clínica	1	2	L	Zentroak Centros
1 2 3 5 7 8 12	Eibar	Osasun laguntzailea Auxiliar sanitario/a	36	1	L	Zentroak Centros

15						
16						
17						
19						
24						
25						
26						
27						
31						
33						
37						
38						
40						
42						
47						
48						
49						
52						
53						
54						
55						
57						
50.1						
50.2						
51.1						
51.2						
58.1						
58.2						
10 29.1 29.2	Eibar	Osasun laguntzailea <i>Auxiliar sanitario/a</i>	3	1 (*)	L	Zentroak Centros
27.03 38.03 39.03	Hernani	Klinika laguntzailea <i>Auxiliar de clínica</i>	3	2	F	Zentroak Centros
105.4 105.5 105.8	Irun	Egoitzako laguntzaile <i>Auxiliar de residencia</i>	3	1	F	Zentroak Centros
Oñati	Oñati	Gaueko auxiliarra <i>Auxiliar de noche</i>	2	2	L	Zentroak Centros
Oñati	Oñati	Gaueko auxiliarra <i>Auxiliar de noche</i>	2	2 (*)	L	Zentroak Centros
C12 C14 C15 C2 C8	Tolosa	Zaintzailea <i>Cuidador/a</i>	5	2	L	Zentroak Centros

(*) Hizkuntza eskakizuna ez da derrigorrezkoa / Perfil lingüístico no preceptivo.

Donostia, 2022ko abenduaren 22a.-Kabiako Gobernu Batzordeko idazkaria.
(8740)

San Sebastián, a 22 de diciembre de 2022.-La secretaria de la Junta de Gobierno de Kabia.
(8740)